



1HI-028/07-P05-A

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN ARABAKO HIRIGINTZA PLANGINTZAKO ATALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: ekainaren 8an Arabako Hirigintza Plangintzako atalak egindako 4/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

"I.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Iruña Okako udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientearen txostena egin da –Langraiz Okako 2. poligonoko 275, 508, 509, 510, 511, eta 512 zenbakiko bizitegi hiri-lurzoruko lursailei dagokien aldaketa da, hain zuzen ere–. Honakoa hartu da kontuan:

- Aldaketak eragindako bizitegi-gehikuntzaren aldeko txostena egin da, tamaina txikioa baita indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusten den etxebizitza berriko guztizko kopuru baino. Gainera, Arau Subsidiario horien garatze eta gauzatze mailan oinarritzen da; bat dator Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatik Planean udalerriri dagokionez egiten diren zehaztapenekin –eremu funtzionalean hiri-espaziorako joera handiena duten hiriguneetako bat da–; eta lurzorua kontsumo txikiagoa eskatuko duen garapen iraunkorragoaren alde egiten du.

II.- Behin betiko onartzeko eskumena duen organoari helarazi beharko zaio txostenaren edukian egiten den balorazioa, hau da, espedienteak ahalbidetzen duen bizitegi-erakigarritasunaren gehikuntzari eska dakioken espazio libreen zuzkidura handiagoaren balorazioa.

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko ekainaren 8an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea.